


EAEko 16 eta 24 urte bitarteko gazteen langabezia-tasa igo egin da

Langabezia-tasa hori handiagoa da Espainiako gazteena baino.

[EUSTAT](#)ek ezagutzera eman dituen azken langabezia-datuen arabera —Biztanleria Jardueraren Arabera Sailkatzeko Inkestan (BJA) barne harturik daudenak eta Gazteen Euskal Behatokiak aztertu dituenak—, 16 eta 24 urte bitarteko gazteen langabezia-tasa, 2010ean, % 25,1ekoa izan da, 2009ko tasa baino bi puntu garaiagoa, eta duela hamar urteko datuen parekoa.

Azken urteotan, gazteen langabezia-tasa beti egon da biztanleria orokorrarenaren gainetik. 2010ean, 2008an eta 2009an gertatu den bezalaxe, tasa orokorraren halako hiru da gazteena.


EAEko langabezia-tasen bilakaera (2001-2010) (%)



Iturria: EUSTAT (BJA)

Gazteen langabezia-tasaren bilakaera irregularra izan da 2010ean. % 24,8rekin hasi zen, eta hirugarren hiruhilekoan % 22,5eraino jaitsi zen. Hori ikusita, egoerak nolabait hobera egitea espero zitekeen, baina azkeneko hiruhilekoan (%28) gorakadarik handiena jasan du, eta tasa orokorraren (% 10) ia halako hiru izatera pasatu.

Azkeneko datua [EUROSTAT](#)ek Europako herrialdeei buruz ematen dituen 2010eko azaroko datuekin konparatuta (hiruhilekoaren erdiarekin bat etor daitezzen eta errazago konparatzeko modukoak izan daitezzen), EAEko langabezia-tasa Europako batez bestekoaren gainetik dago (% 21), baina, nolanahi ere, Espainiako gazteen tasa baino nahiko beherago (% 43,6).



Iturria: EUROSTAT, 2010eko azaroko europako datuentzat eta EUSTAT, 2010eko IV.hiruhilekoa, EAEko datuentzat. Ez daude ondoko herrialdeetako datu eguneraturik: Zipre, Grezia, Estonia, Letonia, Lituania, Eslovenia eta Rumania.